

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Familientzako udal laguntzen deialdia, udalerri mugakideetan kirol edo hezkuntza jarduerak egiteak sortutako garraio gastuetarako

Udalbatzak, 2025eko ekainaren 12an egindako osoko bilkuran, udalerri mugakideetan kirol edo hezkuntza jarduerak egiteak sortutako garraio gastuetarako familiei ematen zaizkien udal laguntzen oinarri arauak onartu zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Laguntza honen xedea da arautzea Donemiliagako udalerrian eskaini ez eta Lautadako Kua-drillako beste udalerri batzuetara eskolaz kanpoko hezkuntza jarduerak edo kirol jarduerak egitera ibilgailuz joan beharrak sortutako garraio gastuetarako dirulaguntzak emateko baldintzak eta araubide juridikoa.

2. ARTIKULUA. ONURADUNAK.

Dirulaguntza eskatu eta 2024/2025 ikasturtean zehar Donemiliagako udalerri horretan errol-datuta egon diren eta bertan bizi izan diren pertsonak (familia-unitatea) jaso ahal izango dituzte oinarri hauetan araututako laguntzak.

3. ARTIKULUA. BETEKIZUNAK.

Laguntzak eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira:

a) Laguntzaren eskatzaile eta onuradunak udalerrian errol-datuta egon beharko du, bai eta eskabidea egin ondorengo, gutxienez, bi urteetan ere.

b) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da edo matrikulatutako ikastaroa gaingitu.

4. ARTIKULUA. AGIRIAK ETA ESKAERAK.

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Udalak emandako eskaera orri ofiziala.

b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.

c) Ikastaroaren ezaugarriak (hasiera eta amaiera egunak, asistentziari buruzko datuak...) jasotzen dituen ikastetxearen agiria.

d) Bizikidetza unitatearen errolda-ziurtagiria.

5. ARTIKULUA. ESKAERA AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Donemiliagako udal bulegoetan jaso daitezkeen inprimaki eskaerak eta eskatutako gainerako agiriak 2025eko irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, Donemiliagako udaletxean.

6. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak 2025eko aurrekontu orokorraren 326.482.001 partidako aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio. Partida hori 10.000,00 euroz hornituta dago eta aurrekontu partida horretakoak agortu arte emando dira laguntzak.

JARDUERA EGITEN DUEN BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDE KOPURUA	JARDUERA MOTAK 1	JARDUERA KOPURUA 2 EDO GEHIAGO
1	100 €	200 €
2	200 €	300 €
3 edo gehiago	300 €	400 €

7. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste herri administrazio batzuek xede bererako eman ditzaketen beste batzuekin.

8. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Onuradunek egunean eduki beharko dituzte beren betebeharrak ekonomikoak eta administrazioak udal honetako ogasunarekin, dirulaguntza ordaintzen zaien unean.

9. ARTIKULUA. BETEKIZUNAK EZ BETETZEA.

Oinarri hauetan ezarritako betekizunak ez betetzeak berekin ekarriko du ordaindutako diru kopuruak itzuli behar izatea.

10. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: Toki Araubidearen Arautegia; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; udalak onetsitako Dirulaguntzen Udal Ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

11. ARTIKULUA. KONFIDENTZIALTASUNA.

Donemiliagako Udalak, Datu Pertsonalen Babesaren eta Eskubide Digitalen Bermearen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten du ematen dizkiguzun datuak Donemiliagako Udalen ardurapeko tratamendu jardueran batean sartuko direla, zeinaren helburu baita horien ondoriozko administrazio espedienteak eta administrazio jarduerak izapidetzea eta kudeatzea. Ez da aurreikusten zure datuak hirugarrenei jakinaraztea, nahiz eta, haien edukiaren arabera, hartara legez behartuta egon gaitezkeen. Halaber, eskubidea izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin, tratamendua mugatu, edo datuok transferitzeko. Eskubide horiek guztiak Donemiliagako Udalean egikarituko dira, Arabako Erdoña herriko (01208) Andia kaleko 9an edo posta elektronikoko honetan: dpo-dbo.sanmillan@ayto.araba.eus.

Erdoña, 2025eko uztailaren 2a

Alkatea
ERIKA LETAMENDI HURTADO